

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

2020ko ekitaldirako ordenantza fiskal eta prezio publikoei behin-behineko onespena ematea

2020ko urtarrilaren 1.etik aurrera aplikatuko diren zenbait ordenantza fiskal eta prezio publikoren aldakuntzari behin-behineko onespena ematea erabaki zuen Gasteizko udalbatzak 2019ko urriaren 18an egindako osoko bilkuran.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoaren ildotik, testu osoak San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea— jendaurrean egongo direla jakinarazten da, interesdunek aukera izan dezaten dosierra aztertu eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau argitaratzen den egunetik. 2019ko abenduaren 3an bukatuko da epea. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betikotzat joko dira ordura arte behin behinekoak ziren erabakiak.

Orobat egongo da eskuragarri hemen: www.vitoria-gasteiz.org/zergak.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 18an

Ogasun saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE